


Urretxu-Zumarragako Gazte Asanbladaren erantzuna Urretxuko udal-gobernuaren gezurrei

Gaztetxearen 20. urteurren festa egitea debekatu zigutelako egin genuen salaketari udal gobernuak emandako erantzuna ikusita, ondorengo adierazi nahi dugu:

Benetan larriak iruditzen zaizkigu udalak esandako gezurrak eta harrigarria dela uste dugu Urretxukoudaletxeak gezurrak horren era nabarmenean esateko arazorik ez izatea. Azken batean, debekua ezin izan dute justifikatu eta hanka sartu dutela onartzeko gai ez direnez, beraien burua zuritzeko gezurrak esatea erabaki dutela dirudi. Ondorengoak dira gezur horietako batzuk:

1.- Gaztetxe barruan urteurrena ospatzeko baimena eman zigutela gezurra da. Udalak urteurrena ospatzeko baimena ukatu zigun, eskaeraren erantzun ofizialean garbi ikusten denez:



Hori gutxi ez, eta udal-gobernuko kide batek telefonoz berretsi zigun debekua, telefonoz izandako ondorengo elkarrizketan, adibidez, ikusten den moduan:

“ -[Asanbladako kidea] Iruditzen zaigu urtean zehar ibili zaretela asanbladari oztopoak jartzen eta iruditzen zaigu pasada bat urteurrenean asanbladari ezezkoa esatea. Orduan, jakin ezazue guk urteurrena ospatu egingo degula baimena eduki edo ez, 20 urte ez direlako urtero betetzen.

- [Udaleko ordezkaria] Ba nik ordun egingo dudana da... ba ez duzue ospatuko. Horrela ez gara ibili behar. Esan dizuegu oso-oso garbi, hau ez da mafia bat. Eta zuek arau batzuen pean jokatu behar duzue.

- [A.k.] Bai, eta arauak bete ditugu.

- [U.o.] Bai eta guk erantzun bat eman dugu.”

Edo beste elkarrizketa zati honetan:

“ - [Asanbladako kidea] Ari gara esaten urteurren bat dela.

- [Udaleko ordezkaria] Eta zer?

- [A.k.] Fetxa zehatz bat dageola urteurrenerako eta zuek hori badakizue zuekin bilera eduki genuen egunetik. [...].

- [U.o.] Ez da posible.

- [A.k.] Zuek jakinarazi zeniguten guri ekainaren 18an Gaztetxeko urteurrena zela eta bidaltzeko permisoa zuek guri materiala utzi ahal izateko.

- [U.o.] *Baina beste gauza batzuk daudela.*
- [A.k.] *Eta esan diguzue materiala ez diguzuela utziko eta gainera denegatu egin diguzue eskaria.*
- [U.o.] *Beste gauza batzuk daudelako ere bai. Zer uste duzue zaretela, munduaren zentroa, ala?"*

Gure ustez eztaba daezina da udalak bazkaria eta kontzertuak egitea debekatu zigula, eta ez aparkalekuan karpa jartzea soilik, haien oharrean dioten bezala. Ezerezetik haiek erasotzeko asmatu dugun zerbait dela irudikatu nahi badute ere, orain artekoek ez dute interpretazioetarako tarterik ematen.

Bide batez, aipatzekoa da Urretxuko udalari egindako baimen eskaeran, akats bat dela medio, Zumarragako festetako txoznen eskaera ere gehitu genuela, Zumarragako udalera bidali behar zena. Udalak bere oharrean aipatzen du eskaera hau, erratuta bidali geniela jakinda ere, gure eskaria esajeratua izan zenaren itxura emateko. Esan behar da gure salaketa batez ere urteurren ospakizuna debekatu digutelako izan dela eta ez dugula inongo momentutan azpiegitura gehigarririk uztea exijitu, azpiegitura hau guri uzteko udaletxearen borondatea hutsaren hurrengoa dela jakinda ere.

2.- Ez da egia urteurreneko debekua jaso ondoren ez genionik udalari biltzeko eskatu: maiatzaren 25ean, asteazkena, 13:04tan ondorengo mezua bidali genion udal-gobernuko kide bati, berak kontaktu zuzena izan zezan emandako zenbakira:

“ Egunon, XXXX! Aurrekoan urteurreneko baimena eskatu genuen eta ezeztatu egin digute, horren inguruan hitz egiteko geratzea gustatuko zitzaigun. Ostiral goizean posible duzue?”

Erantzuna, egun bereko 19:12etan:

“ XXXXX, ostiralean bilerak dauzkat kanpoan. Bihar deituko dizut nik.”

Bukatzeko, asanbladako kidearen agurra:

“ Perfekto! Mila esker.”

Mezu hauen ondoren, ostiralean bertan, arratsaldeko 19:30ak aldera deitu genion, asteburua baino lehen argitzea beharrezkoa zelako, hasita genuen planifikazio eta antolakuntzak aurrera egin zezan.

Orain arte aipatutakoarekin garbi ikusi daiteke gezurretan ari direla. Izan ere, ez dira interpretaziorako aukera ematen duten kontuak edo zehazgabetasunak. Jakinaren gainean esandako gezurrak dira eta asmo garbi bat dute: kanpora begira gure hitzari sinesgarritasuna kendu eta gure aurka duten jarrera ezkatzea. Horri gehitu behar zaio udal gobernuak argitaratutako testu osoan zehar gurekiko duten harremana zuzentzeko duten asmoa, haien laguntza eta errespetua dugula sinestaraziz. Kontrara, oztopoak eta kontrol saiakera dira egunerokoan bizi ditugunak, aurreko bi puntuak ez bezala testu batean frogatzen zailak eta azaltzen luzeak direnak baina bertatik bertara bizi izan dituenak ondo ezagutuzten dituenak.

Bukatzeko, gezurrak esateaz gain gaztetxea eta gazte asanblada difamatu eta desprestigiatu nahi izan dituztela salatu nahi dugu, batez ere hiru zentzutan: 1) gaztetxea herriko gazteei itxia dagoela esanez, 2) sekulako dirulaguntzak ditugula esanez eta 3) bizilagunekin arazoak ditugula esanez.

- 1) Prentsaurrekoan esan genuen bezala, gaztetxea espazio politizatu bat da, bai, baina ez al dira politika kaleko bideobijilantzia kamarak eta pankartak edo kartelak jartzeko murrizketak? Eraso matxistak parrandan eta dozenaka gazte udan beltzean lanean? Aipatutakoak bultzatzen, onartzen edo kasurik onenean aurpegia garbitzeko bakarrik

aipatzen dituen udal gobernua neutrala eta irekia al da? Gaztetxea espazio politizatua da eta horregatik da irekia, horien guztien aurkako jarrera politikoa duelako, bazterketarik gabeko gizarte bat nahi duelako eta bide horretan gazte guztiak batu daitezkeen ateak irekita dituelako.

Azkenik, ez dugu onartzen GKS eta Itaiak gaztetxea kontrolatzen duten bi talde bezala agertzea. Urretxu-Zumarragan gazte eta emakume langileon defentsan lan egiten duten bi talde dira hauek, behar dutenean gaztetxea erabiltzen dutenak (nola ez ba?) eta bertako militanteek gaztetxeari ekarpena egiten diotenak; kontrol gosea udal-gobernuarena da, ikusten ari garenez. GKS eta Itaiak bezelaxe, beste hainbat taldek ere erabiltzen dute gaztetxea. Aurten, honezkerok, Mirentxinek, KKin zona irratia, Hezurre kolektiboak, Euskal Udalekuek, Korrikak, Bertso Eskolak, Ikasle Abertzaleek eta Kontseilu Sozialistak ere erabili dute, eta gehiagok ere erabiliko dute.

- 2) Diruari dagokionez, udaletxeak ez du aipatu diru laguntza horren barruan sartzen direla bi herrietako festetako txoznak ere. Horrek esan nahi du diru horrekin bi herrietako festak eta urte osoko gaztetxeko egitaraua osatzen direla.

Edonork ulertuko duenez, sortutako gastu guztien zati txiki bat soilik kubritzen du horrek, dena batuta eta hiru urtetakoa kontatuta zifra ikaragarri bat bezala erakutsi nahi izan badute ere. Gainera, kontuan izan behar da asanbladako inork ez duela zentimorik kobratzen borondatezko lanagatik, asanbladari udalak emandako euro bakoitza justifikatzen dela urte bukaeran eta askotan tekniko, musikari, antzerkigile, hizlari etabarrek ere musutruk edo oso diru gutxiren truke egiten dutela lan espazio honetan, ekitaldi hauetako gehiengo handia debalde direlarik.

Bukatzeko, zifrak konparatze aldera, udaletxearen aurrekontuaren %0,02a da: 10.000 eurotik 2 euro, edo udalak festetan bere egitarauetan ordubeteko kontzertu bakar batean gastatu ohi duena. Diru kontuak aipatzen hasi nahi badute, aipatu dezatela zenbat kobratzen duten udal gobernuko kideek herria 'zerbitzatzeagatik'.

- 3) Bizilagunekin dugun harremana ez da inondik inora testuan aipatzen den gisakoa, eta edozer dela ere ez daukagu arazorik haiekin hitz egiteko. Udalak aipatzen dituen kexa horien berri inork ez digu eman eta, beraz, ez daukagu hauek zertan sinetsi, are gehiago testuan bota dituzten gezur guztien ostean. Gure jardunean inor molestatu badugu horri buruz hitzegin eta irtenbideak bilatzeko arazorik ez dugu, baina esan bezala inongo momentutan ez zaigu horrelakorik esan gaur egungo asanbladako kideei.

Udalak bere oharrean aipatutako beste hamaika puntu erantzun nahiko genituzkeen arren, orain artekoak esanda uste dugu argi geratzen dela haien sinesgarritasuna zein den. Finean, ohar tamalgari horren bidez bada ere, ulertzen dugu atzera egin dutela eta urteurrena ospatzeko baimena eman digutela. Horixe zen gure nahia eta pozten gara lortu dugulako. Salaketa honetan babestu gaituzten guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu eta larunbatean gaztetxearen 20. urteurrenako ospakizun handian elkar ikusiko dugula espero dugu!

Oztopoen gaineratik, 20 urtez GazteleKU bizirik!
Zorionak GazteleKU!